

TXOSTENA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan xedatzen denez, erregelamendu edo lege proiektu edo aurreproiektu bat egin aurretik kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren web atariaren bidez, jakiteko zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta erakunde nabarmenenek. Txostenean gai hauek jasoko dira:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Aukeran dauden beste alternatiba batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak).

Dena dela, artikuluko horren 4. apartatuak ezartzen du ezen aipatutako alde zuzeneko kontsulta publikoa ez egitea ere badagoela, baldin eta arau-proposamenak eragin esanguratsurik ez badu jarduera ekonomikoan, arauaren xede diren herritarrei betebeharrak garrantzitsurik ez badakarkie edo arautzen dituen aspektuak partzialak badira.

Foru dekretuaren proiektu honek xede du aldatzea Balio erantsiaren zergaren gaineko zerga (martxoaren 8ko 86/1993 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen) eta Fakturazio betebeharrak arautzen dituen Erregelamendua (apirilaren 10eko 23/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen), edukia egokitu dadin Estatuko araudian egindako aldaketetara. Aldaketa horiek eragin ziren Kontseiluaren 2017ko abenduaren 5eko 2017/2455 (EB) Zuzentarauaren bidez (zuzentarau horren bidez, aldatzen dira 2006/112/EE eta 2009/132/EE zuzentarauak, zenbait betebeharrak dagokienez, zerbitzu emateen eta ondasunen urruneko salmenten balio erantsiaren gaineko zergari dagokienez).

Orobat, aipatutako proiektuak berekin dakar aldaketa txiki bat Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Erregelamenduan (maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsia), jabetza intelektualetik eratorritako kapital higigarriaren etekinen atxikipenei dagokienez, berdindu daitezten abenduaren 28ko 26/2018

Errege Lege Dekretuan ezarritakoekin (haren bidez presazko neurriak onetsi ziren sormen artistikorako eta zinemagintzarako). Eta, bestalde, zehazten du zer beharkizun bete behar dituzten biziarteko errenta aseguratuek baldin badituzte lehengoratzeko-mekanismoak, edo prestazioaldi ziurrak, edo kontraaseguru formulak, bermatzeko bilatzen den asmoa beteko dela.

Horri dagokionez, ulertu behar da ezen Balio erantsiaren zergaren gaineko zerga (martxoaren 8ko 86/1993 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen), Fakturazio betebeharrak arautzen dituen Erregelamendua (apirilaren 10eko 23/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen) eta Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Erregelamendua (maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen) aldatzeko foru dekretuaren proiektua bat datorrela urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikulua 4. apartatuak dioenarekin (39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa), proiektua egin aurreko kontsulta publikorik ez egiteko baldintzak betetzen baitira: arau-proposamenak ez du eragin esanguratsurik jarduera ekonomikoan, arauaren xede diren herritarrei ez dakarkie betebeharrak garrantzitsurik eta arautzen dituen aspektuak partzialak dira.

Hori hala izanik ere, foru dekretuaren proiektua kontsulta publikoan jarriko da eta Nafarroako Gobernu Irekiaren atarian argitaratuko, baita Nafarroako Zerga Ogasunaren atarian ere.